

Hezkuntza eskaintza Aiaraldean

Aukeren

motxila

zabalik



**Edukiz eta publizitatez
osatutako gehigarri berezia**

Eskola publikoak



ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETXEA	URDUÑA HERRI IKASTETXEA	ZABALEKO IKASTETXEA	ZARAIBE INSTITUTUA	LUCAS REY HERRI IKASTETXEA	ETXAURREN IKASTOLA
  IRAKASKUNTZA: ✓ Udal Haurreskola (0-2 urte) ✓ Haur Hezkuntza (2-5 urte) D eredu ✓ Lehen Hezkuntza (6-12 urte) D eredu ZERBITZUAK: ✓ Eskola garraioa ✓ Jantokia ✓ Sukaldea ✓ Ingelesa 4 urteko gora ✓ Musika 4 urteko gora ✓ Goizeko 8etatik hezkuntzaindegia ✓ Liburutegia ✓ Talde psikopedagogikoa ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Kirol instalazioak eta berdeguneak ✓ Psikomotritzitatea (Haurreskolan eta Haur Hezkuntzan) PROIEKTUAK: ✓ IKT Heldutasun 2. maila ✓ Elkarbizitza ✓ Zientzia - Hezkuntza (Haur eta Lehen Hezkuntzan) ✓ Kontzientzia fonologikoa (Haur Hezkuntzan) ✓ Bikoteka irakurtzen (Lehen Hezkuntzan) ✓ Matematika Tailerra (Lehen Hezkuntzan) ✓ Euskararen normalizazio proiektua La Barcina, 1 ARTZINIEGA Tel.: 945 396 046 - Fax: 945 396 520 email: 0100109a@hezkuntza.net www.artekogureama.com	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haur Hezkuntza D eredu (2-5 urte) ✓ Lehen Hezkuntza D eredu (6-12 urte) ZERBITZUAK: ✓ Doako eskola garraioa ✓ Guraso elkarlanean kudeatutako jantokia, bertoko eta inguruko elikagai ekologikoz ✓ Informatika (gela guztietan) ✓ Ingelesa 4 urteko gora ✓ Musika 4 urteko gora ✓ Liburutegia (eskola eta eskolaz kanpoko orduetan) ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Psikopedagogia laguntza ✓ Goizeko gela PROIEKTUAK: ✓ Agenda 21 ✓ Elkarbizitza proiektua ✓ Elikagiltza proiektua (elkadaruri buruzko hezkuntza programa) ✓ Euskararen Normalizazio Proiektua ✓ Ikasketa kooperatiboa ✓ Mintzapraktikako laguntzaile natiboa San Francisco, 3. URDUÑA Tel.: Fax: 945 383 504 email: 014379aa@hezkuntza.net	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haur Hezkuntza D eredu (2-5 urte) ✓ Lehen Hezkuntza D eredu (6-12 urte) ZERBITZUAK: ✓ Jantokia ✓ Eskola garraioa ✓ Talde multiprofesionala ✓ Gela guztiak informatizaturik ✓ Informatika gela ✓ Ingelesa 4 urteko gora ✓ Musika 4 urteko gora ✓ Kirol instalazioak ✓ Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak ✓ Bikoteka irakurtzen ✓ Kulturartekotasuna ✓ Ortu ekologikoa PROIEKTUAK: ✓ Agenda 21 ✓ IKT: Prestakuntza informazio eta komunikazioaren arloko teknologia berrietan ✓ Eleaniztasuna BISITA GIDATUA Urtarrilaren 30ean 13:15etan 5. Juse, Auzoa, AMURRIO Tel.: 945 890 462 - Fax: 945 891 724 email: 010003aa@hezkuntza.net	  HEZKUNTZA ESKAINTZA: ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH (B eta D ereduak) ✓ Gela egonkorra ✓ Babolergoa (D eredu) ✓ Heziketa Zikloak ✓ Oinarriko Lanbide Heziketa ✓ Lanpetu eta langabetuentzako formakuntza ✓ DUAL (lanbide heziketa) ZERBITZUAK: ✓ Jantokia ✓ Eskola garraioa ✓ Kirol instalazioak ✓ Orientazio akademiko profesionala ✓ Lan polita PROIEKTUAK: ✓ Aniztasunaren trataera ✓ Agenda 21 ✓ Europar proiektuak ✓ Euskararen normalizazio proiektua ✓ IKT heldutasun 2. maila ✓ Berrikuntza proiektuak ✓ Hezikidetzak ✓ Erroketan oinarritutako irakaskuntza (LH) Etzebarriau, 8 AMURRIO Tel.: 945 393 000 - Fax: 945 393 682 email: zaraibe@zaraibe.net www.zaraibe.net - twitter	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haur Hezkuntza (2-5 urte) B eta D ereduak ✓ Lehen Hezkuntza (6-12 urte) B eta D ereduak ZERBITZUAK: ✓ Eskola garraioa ✓ Jantokia (bertan eginko bazkaria) ✓ Teknologia berriak ✓ Ingelesa 4 urteko gora ✓ Musika 4 urteko gora ✓ Ikasleen zaintza 07:45etik ✓ Liburutegia eguerdian ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Talde psikopedagogikoa PROIEKTUAK: ✓ Eskola Agenda 21 ✓ Elkarbizitza ✓ Hezikidetzak ✓ Ewinning: europar proiektua Lucas Rey kalea, 15 AMURRIO Tel.: Fax: 945 890 481 email: 010327aa@hezkuntza.net	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haurreskola (0-2 urte) ✓ Haur Hezkuntza (2-5 urte) D eredu ✓ Lehen Hezkuntza (6-12 urte) D eredu ZERBITZUAK: ✓ Doako eskola garraioa ✓ Jantokia, bertan eginko bazkaria ✓ Teknologia berriak ✓ Kirol instalazioak ✓ Ingelesa 4 urteko gora ✓ Musika 2 urteko gora ✓ Liburutegia ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Psikomotritzitatea 2 urteko gora ✓ Hezkuntza premia bereziko baliabideak ✓ Zerbiztu Psikologikoa ✓ Gela egonkorra PROIEKTUAK: ✓ Eskola Agenda 21 ✓ Hezikidetzak / Elkarbizitza ✓ IKT: Heldutasun 2. maila ✓ Bikoteka irakurtzen (Lehen hezkuntza) ✓ Hitzez Hitz aldizkaria Itagoien auzoa, 1 ZUMATZA Tel.: 945 18 70 00 email: 010165aa@hezkuntza.net www.ikastolaetzaurren.net

Urduñako eskola berritzeari ekin diote, auzolanean

Jantoki ekologikoa da aurten ikastetxeak izango duen zerbitzu berritzaileena. Horrez gain, hainbat azpiegitura berrituko dituzte, ikastetxea handitzeari begira.

Aurreko ikasturtearen bukaeran eskolako jolastoki eremua birmoldatu zen. Prozesu parte hartzaile baten bitartez, herritar, ikasle eta gurasoen proposamenak kontuan hartuz, eta udalaren laguntzaz, auzolanean ekin genion lanari: futbol eta saskibaloi-ko eremuak lekutuz, jolas sinbolikoan aritzeko elementuak sortuz, arearekin jolasteko gunea atonduz...

2018/2019 ikasturteko bigarren berrikuntza nagusia eskolako jantokia da. Urteetako lanari esker eskolako jantoki ekologikoa ireki da. Ondoko sukaldean prestatzen diren elikagaiak herrian erositakoak, gertukoak eta ekologikoak dira. Hurrengo ikasturteko erron-



Hainbat auzolan egin dituzte ikastetxean. Urduñako eskola

ka ikastetxea handitzea izango da. Haur Hezkuntzako gelak iazko udan birmoldatu ziren ikasle kopuru handiari le-

kua egiteko, eta aurrerantzean jantokia eta ikastetxeko beste eremu batzuk handitzeari ekingo zaio.

“Zaraobe beti izan da Aiaraldeko ikasleen elkargunea”

ROBERTO MARIN ZARAUBE INSTITUTUAN IKASI ZUEN, ETA ORAIN BERTAKO ZUZENDARI BERRIA DA. IKASTETXEAN GARATZEN ARI DIREN ERRONKEN INGURUAN MINTZATU DA.

Zer geratzen da Zaraoben zuk ikasle bezala ezagutzen zenuen institutuaz?

Ni ikaslea nintzenetik institutuak aldaketa asko izan ditu, noski. Baina, zentzu batean behintzat, berdina da; jarraitzen du Aiaraldeko gazteriaren topagunea izaten, eta sortzen den lotura hori oso mesedegarria da eskualdearentzat. Izan ere, Amurrio, Artziniega, Aiara, Urduña eta Okondo udalerrietako familientzat Zaraobe da bigarren hezkuntzako erreferentzia izango ikastetxea, eta gero eta gehiago dira Euskal Eskola Publikoaren aldeko apustu aktiboa egiten dutenak.

Zein proiektu ditu zuzendaritza berriak?

Zaraobek beti eskaini du kalitatezko heziketa, eta emaitzen aldetik pozik gaude. Hala ere, mundu hau oso arin ari da aldatzen eta gu aldaketa horretara egokitzea ezinbestekoa da. Horregatik hainbat aldaketa bul-

tzatuko ditugu hurrengo urteetan. Adibidez, ingelesa indartuko dugu ikasgai bat hizkuntza horretan eskainiz, eleantzasun proiektuaren bidez.

Iritsi al da unea euskarri digitala pasatzeko?

Ukaezina da konpetentzia digitala funtsezkoa dela gaur egun. Gure aldetik, hausnarketa sakona egin ondoren, urrats garrantzitsu bat eman nahi dugu: hemendik bi urtera, DBH3. mailatik aurrera, 1X1 plana ezartzeko asmoa daukagu. Horrek ekarriko du nork bere ordenagailua izango duela lan tresna nagusi gisa, liburuak baino gehiago.

DBHko ikastetxe gehienak ari dira goizeko ordutegi trinkoa ezartzen. Zuek horren aldekoak al zarete?

Gure artean ere debatea piztu da eta, egia esan, aldagetak zenbait onura ekar ditzakeela iruditzen zaigu. Nolanahi ere, gai honetan familien iri-



tzia oso garrantzitsua da. Familien gehiengo argi bat horren aldekoa baldin bada egin ahalko dugu ordutegi trinkoaren planteamendua.

Aldaketa, ordea, Hauspoa proiektuaren barruan egingo genuke: arratsaldeak aprobeztatuko genituzke errefortzu klaseak eta tailerrak eskaintzeko, Audio Institutuan egiten ari diren bezalaxe.

Bilera irekia Lucas Rey ikastetxean gaur, urtarrilak 23

Ikastetxeko eskaintza eta hezkuntza proiektua azalduko dituzte eta bisita-gidatua egingo dute jarraian eraikinean barrena.



Bisita gidatua eskainiko dute ikastetxean barrena. Lucas Rey

Gaur-urtarrilak 23-, asteazkena, 15:00etan, Lucas Rey ikastetxeko liburutegian bilera informatiboa egingo dute. Eskola ezagutu nahi duen orori luzatu diote parte hartzeko gonbita. Hasteke, ikastetxeko zenbait gairi buruz hitz egingo dute (hezkuntza-proiektua, baliabideak, ere-

muak...). Horrez gain, 2 urteko gelen inguruan arituko dira eta, jarraian, bisita gidatua eskainiko dute ikastetxean barrena.

Horrez gain, ikastetxearen gaineko informazioa eskuratzeko aukera dago idazkaritzara bertaratuta, astelehenetik ostiralera 9:30etik 11:30era.

Zaraobe institutuaren aurkezpenak egongo dira datozen egunetan



Hainbat ikastetxetan egingo dituzte aurkezpenak. Zaraobe Institutua

Zaraobe Institutuko hezkuntza eskaintza gertutik ezagutzeko parada egongo da datozen egunetan eskualdeko hainbat herritan. Institutuko zuzendarietako kideek bilera irekiak egingo dituzte hainbat ikastetxetan, 2019-20 ikasturtearen aurkezpena egiteko.

Bihar-urtarrilak 24- Zabale-

kon eta Urduñako herri ikastetxean egongo dira, 15:00etan eta 16:45ean, hurrenez hurren. Ostegunean-urtarrilak 25- Lyucas Rey bisitatuko dute, 15:00etan. Datorren astean amaituko dute aurkezpen bira. Etxaurrenen egongo dira astelehenen 15:00etan eta Arteko Gure Aman, aldiz, asteartean,

Laudio ikastola

**AMETS
BERRIAK
LANTZEN**

telefonoa:
946726737

**MATRIKULA
ZABALIK**

otsailaren 8 arte

**ATE
IREKIEN
EGUNA**

**URTARRILAK 25,
OSTIRALA
16:30etik 18:30era**



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Haur Hezkuntza, eraldaketan buru-belarri

Aldaketa sakonak egin dituzte Laudio Ikastolako Haur Hezkuntzan. Espazioak moldatu dituzte, ohiko ikasgelen eredutik aldendu eta umeei esperimentatzeko aukera eskaini eta kalitatezko zaintza bermatzeko.



Elementuekin esperimentatzean datza Haur Hezkuntzako metodologiaren zati handi bat. **Laudio Ikastola**

Eraldaketa prozesu batean murgilduta dago Laudio Ikastolako Haur Hezkuntza. Espazioak berritu dituzte, gune zabalei lehentasuna emanez. “Ohiko ikasgelaren eredutik aldendu gara”, azaldu dute irakasleek, “modu horretan, ikasleen egunerokotasuna hainbat espaziotan garatzen da”. Umea “era espontaneo eta librean” aritzea da ikastolaren xedea.

Esperimentazio tailerrak

Baina ez dira espazioak moldatzera mugatu. Egunerokoan ere aldaketa sakonak egiten ari dira. “Geletan egunero hainbat proposamen egiten dira eta umeak modu librean mugitzen dira gune batetik bestera, euren gogo eta interesen arabera”.

Esperimentazio tailerrak ere

Ohiko ikasgelak hainbat esperimentazio gunerengatik ordezkatu dituzte Haur Hezkuntzan, haurrak era espontaneo eta librean aritu daitezen

antolatzen dituzte. “Proposamenguztiak dira esperimentatzeko, ikertzeko eta jabetzeko”. Modu horretan, haurrek aukera dute gune horietan azalera-

tzen diren emozioak adierazteko. Irakasleen arabera, esperimentazio prozesua da gakoa, ez amaierako emaitza, ezta ekoizpena ere.

Kalitatezko zaintza

Lehenengo zikloan, kalitatezko zaintza da egunero lantzen duten beste ardatza. “Jateko unea, garbitzekoa, lo egitekoa... haurraren eta helduaren arteko une estuak dira”.

Horregatik, Laudio Ikastolan arreta berezia jartzen diete une horiei, “umeak mimoz tratatuz”. Ume bakoitzaren erritmoak kontuan hartzen dituzte jan edo lo egiterako orduan.

Bigarren zikloan, adin ezberdinetako haurrak elkarlanean aritzeko guneak sortu dituzte, “elkarrekin esperimentatzeko aukerak zabalduz”.

Arratsaldeetako eskaintza oparoa, ikastolako Ganbaran

Hezkuntza formal zein ez-formaleko eskaintza oparoa ematen hasi dira arratsaldeetan Laudio Ikastolan, DBHko ikasle zein familientzat.



Espeleologia irteera antolatu dute ikasleek, besteak beste. **Laudio Ikastola**

2018-2019. ikasturtean orduz jarraia abiatu dute Laudio Ikastolako DBHko etapan. Hori dela eta, egitasmo berezia atondu dute arratsaldeei begira: Ganbara. Hezkuntza formaleko zein ez-formaleko eskaintza osatzea da ekimenaren helburua, DBHko ikasle zein familiei zuzendua.

Astelehenetik ostegunera jarri dute martxan egitasmoa, arratsaldero. Astelehen, astearte eta ostegun arratsaldean hezkuntza formalera bideratu dituzte. Indartze saioak egiten dituzte hiru egun horietan, 15:30etik 16:30etara. Saio horien helburua ikasleei indartze saioak eskaintzea da, izen-ematea boluntarioa izanik. Hiru jakintza multzotan banatu dituzte indartze-saio horiek: astelehenak hizkuntzetara bideratuko dituzte, astearteak zientzietara eta ostegunak, aldiz, gizarte zientzietara, arte arloetara, teknologiarara eta gorputz hezkuntzara. Hala ere, antolaketan hori izen emate kopurua arabera moldatu dezakete, irakasleek aurreratu dutenez.

Horrez gain, ikasleek euren kabuz lan egiteko aukera ere izango dute hiru egun horietan, ordutegi berdinean. Norberaren lanak garatu edo lan taldeetan aritzeko beta izango dute bertan ikasleek.

Hezkuntza ez-formala

Asteazkenetan, aldiz, hezkuntza ez-formalari lotutako

aisialdi saioak eskaintzen ari dira ikastolan, ikasle eta familiei zuzendutakoak. Lau “txoko” proposatu dituzte. Euskal kulturaren txokoa da horietako bat, euskarazko zinemagintzari buruzko zine-foruma, hain zuzen ere.

Bigarren txokoa ikasleena izango da. Ikasleek eurek adostutako aisialdi ekintzak garatzea izango du helburu.

Hezkuntza formal zein ez-formaleko saioak eskaintzen dituzte Laudio Ikastolan arratsaldero ikasle zein familientzat

Hirugarren txokoa familiena izango da eta DBHko guraso ordezkariak planteatutako ekintzak eskainiko ditu, hileko hirugarren asteazkenetan.

Amaitzeko, azken txokoa orientazio akademikoaren ingurukoa da. DBHko ikasleen familiei aholkularitza akademikoa ematea izango du helburu.

Aurreratu dutenez, Ganbara programa urritik maiatzera ari da burutzen.

Laudio BHI

Hezkuntza ibilbide guztiak, ikasleen esku

Laudio institutuak ikasle guztientzako aukerak eskaintzen ditu. Batxilergoko hiru modalitateak baita Lanbide Heziketako hainbat gradu ere. D eredua da nagusi, baina hainbat ikasgai ingelesez eskaintzen dira.



Euskaraldiarekin bat egiteko ekitaldia egin zuten Laudio BHI institutuko ikasle eta langileek. **Laudio BHI**

IES Laudio BHI ikastetxeak urte asko darama ikasketa ibilbideak egokitzen, berrituz eta burutzen euskaraz, D eredu, DBHn nahiz Batxilergoko hiru modalitateetan (Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak). Gainera, Ingelesa indartzeko proiektuaren bitartez, DBH

osoan zehar hainbat irakasgai ingelesez jorratzen dira.

Institutuak ikasle bakoitzari begira hezkuntza plan egokituak etengabe planteatzen ditu, Aniztasun Curricularra DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleentzat, DBH agiria eskuratu ahal izateko.

Hezkuntza premia berezietako ikasleentzat Gela Egonkorrak dago, baita Zeregin Ikasketak Gela ere. Lanbide Heziketa ikasketak ere egin daitezke. Batetik, Estetika eta Edergintza Erdi mailako zikloa; bestetik, Ile-apaintza eta Estetika Oinarrizko ikasketak.

Liburuetatik harago



Azken berrikuntzetako bat 2018-19 ikasturtean HAUSPOA proiektua bideratzea izan da. Honek ekarri dituen abantailen artean daude goizeko eskola ordutegi trinkoa, arratsaldeko irakasgaien errefortzuak egotea eta zenbait tailer eskaintzea.

Horien artean nabarmendu behar da Erasmus + ekimena. Ingelesa ikasketetan uztartzeko balio du, ikasleen elkartrukaketa eta hainbat herrialdeetako kulturaren ezagutza sustatuta. Teknologia berrien arloan, robotika dago, eta garapen pertsonalerako beste

hainbeste ikasgai. Ikasturtero bezala, jantoki eta autobus zerbitzuak diruz lagunduta daude. Ikastetxeko orientazio mintegiak eta zuzendaritza taldeak elkarlana egiten dute eskolako tutoreekin batera eskolatik instituturako aldaketa ahalik eta erosoena izateko.

Azkenik, ikasleentzat ezinbestekoak diren zeharkako edukiak lantzen dira; ikasleek zein gurasoek oso era positiboan baloratzen dituztenak: giza eskubideak eta indarkeria (ZINHEZBA), menpekotasunen prebentzioa (SASOIA), heziketa afektibo-sexuala (EMAIZE)...

Elkarrekin
hezkuntza
eraldatzen
aresketa
ikastola



www.aresketaikastola.eus - 945890360

etorri eta
ezagutu
gure proiektua!

1977an gurasoek sortua herritik herriarentzat - Gurasoen kooperatiba - Herri onuradun irabazi asmorik gabeko elkarte - Herri dinamiketan esku hartzailea - 2 eta 16 urte arteko proiektua - Euskara - Gaztelania - Ingelesa - Frantsesa - Konpetentzietan oinarrituta - Aniztasunari trataera integrala - Indartze gelak - KIVa proiektua - Ikastolen berezko metodologia - Sarrera prozesua - Psikomotrizitatea - Tutoretzak - Familia eskola - Familientzako aholkularitza - Logopeda - Laguntzaileak - Agenda 21 - Irratia - Eskolaz kanpoko ekintzak - Euskal kultura - Euskaraz Bizi - Hezkuntza jardunaldi irekiak

Artikulua

Hezkuntza Sailak jakinarazi du hainbat berrikuntza egongo direla eskaerak egiteko erabiltzen den sisteman.

Hilaren 28an hasiko da aurrematrikulazio epea

Datorren astelehenean -urtarrilak 28- irekiko da Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako aurrematrikula epea. Bi modutan egin ahalko da: internet bidez edo nahi den ikastetxera bertaratuta.

Otsailaren 7ra arte egongo da lehen moduan egiteko aukera, www.hezkuntza.net atariaren bidez. Gurasoek eskaneatuta bidali beharko dute eskatutako dokumentazioa. Gune berezia atondu du Hezkuntza Sailak (www.ikasgunea.euskadi.eus), familiei informazio praktikoa eta gertuko aholkularitza eskaintzeko.

Ikastetxera bertaratuz gero, al-diz, otsailaren 8ra arte egongo da aurrematrikulazioa egiteko tartea. Otsailaren 14an argitaratuko dira eskatzaileen zerrendak. Martxoaren 21ean, al-diz, behin-behineko zerrendak plazaratuko dira, eta erreklamazioak egiteko tartea utziko dute orduan, mar-

txoaren 28ra arte. Apirilaren 4an aurkeztuko dira behin betiko zerrendak. Hala ere, errekursoak aurkezteko aukera egongo da, maiatzaren 6ra arte.

12 ikastetxe eskaeran

Familia bakoitzak 12 ikastetxe hautatu ahalko ditu guztira aurrematrikulazioa egiterako orduan, lehentasunaren arabera ko hurrenkeran jarrita. Hori da aurtengo matrikulazio kanpainaren berrikuntza nagusienetako bat, orain arte 3 ikastetxe baino ezin baitziren hautatu ikasle bakoitzeko.

Hautaketa sistema ere aldatu dute: ikastetxe bakoitzak zerrenda osatuko du zentro hori hautatu duten ikasle guztiekin, eta eskaera guztiak barematuko dituzte. "Aldaketa honekin, lehen postuan plaza gutxi (edo eskaera asko) dituen ikastetxe bat hautatu izanak ez ditu hipotekatuko hurrengo eskaeretakako aukerak", azaldu dute Hezkuntza



Hezkuntza Saileko arduradunak, aurrematrikulazio kanpaina aurkezteko eginiko ekitaldian. Eusko Jaurlaritza

Saileko arduradunek. Horrez gain, beste aldaketa garrantzitsu bat egongo da aurtengo: sare publikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHra salto egiten duten ikasleek ez dute eskaerarik egin beharko, baldin eta familiek ikasketa prozesua ibilbideko ikastetxe atxikian egitea hautatzen badute.

Hezkuntza Sailak adierazi duenez, EAEko 695 ikastetxek hartuko dute parte aurtengo matrikula kanpainan. Horieta-rik 452 (%65) izango dira publikoak.

audio language school
Open your mind!!

INGELESA
3 Urtetik aurrera.
Maila Guztiak.
Elkarriketa-Kurtsoak

ALEMANIERA
Maila Guztiak
Jatorrizko irakaslearekin

FRANTZESA A1 mailatik B2ra

Murgiltze programak udan (Irlanda, AEB, Frantzia...)

tel.: 652 73 32 67
@ roezquerra@hotmail.com
/AudioLanguageSchool

OINARRIAK EZARRIZ

Matrikula zabalik!

La Milagrosa
Audio

www.lamilagrosall.net 94 672 07 01

Erreportajea



Nola hezi haurra generoa ezarri gabe?

Haurri generoa ez ezartzea erabaki du bikote urduñarrak. Aiaraldea.eus

Umeen heziketan eta pertsonaren identitate eraikuntzan eragin nabarmena dute sexuei lotutako rolek. Badira, baina, generoa norberaren hautua izateko moduak. Urduñan bizi den bikote baten esperientziak hala baieztatu du. Haurra generoa markatu gabe hezteari ekin diote. Euren esperientzia eta bizipenak jaso ditugu erreportaje honetan.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Zer dela eta egozten zaizkio haurri jaiotzetik -edota umeki denetik- generoa? Neska ala mutil sailkatzea ohitua dago jendartea, izateko bestelako moduei izkin eginda. Nork -eta zeren baitan- erabakitzen du pertsona baten sexu identitatea?

Umea tripan dela ere, ez da arraroa honako galdera entzutea: zer izango da, neska edo mutila? Horren baitan jasotzen dituzte guraso askok opariarrosak edota urdinak. "Generoa errealitate konplexua da, bere bizitzan zehar hainbat modutan adierazia izango dena", diote J.O eta N.S urduñarrek. Hau-

rrari generoa ez ezartzea erabaki dute, berak libreki aukera dezan. "Esperimentatzeko eta aukeratzeko posibilitatea irekita izan dezala nahi dugu".

Nola egin aurre rolei?

Hori da "galdera izarra". Bikote urduñarrak aspaldi erabaki zuen bide hori hartzea: "Era asko daude: aktibismoa, eguneroko bizitza, jakintza, kultura... Guztiak eragiten du haurrek mundua eta euren burua eza-gutzeko bidean". Garrantzitsutzat dute gurasoek ere euren rolak zalantzan jartzea, zaintzen eremuak "mami asko" baitu. Ez da, ordea, nahi bezain erraza: "Araubidetik aldentzen garen familiok ere, zaintza lanen banaketari eta energia afektiboa-

ri dagokionez, oso bidezkoak ez diren harremanak berregiten ditugu". Oso adi egon beharra dagoela diote, familiak baitira txikiei mundua erakusten dieten lehenak.

Printzesa eta heroi faseak

Printzesa eta heroi faseek laguntzen al dute? Batzuetan beharrezkoak direla pentsatzen dute. Familia ikuspegitik konfiantzan dago gakoa, euren ustetan, "laguntzeko modu egokia aurkitu behar dugu, baina umeak epaitu gabe". Euren esperientzia prozesu hunkigarria eta aberasgarria izaten ari da, aitortu dutenez. Hizkuntza neutroa bezain barneratzailea darabilte, kantu eta ipuinen moldaketak... Horrez gain, ko-

Haurri generoa ez ezartzea erabaki dute J.O eta N.Sk, berak libreki aukera dezan

lore eta estilo anitzeko arropak eskaintzen dizkiete umeari, eta indarra zein samurtasuna orekatzen ahalegintzen dira. Bide horretan, sarritan, jendar-tearen joerak izan dituzte oztopo: "Kanpora begira zailagoa da etengabe mugak jarri behar izatea eta azalpenak ematea; askotan, ulertzen ez dituztenak, gainera. Adibidez, gure haurraren generoa berakesan arte jakingo ez dugula azaltzea, eta zentzu horretan nahiago dugula neska/mutila zara bezalako esaldi borobilak ez erabiltzea berari zuzentzeko".

Baliabideak

Heziketa prozesuaren ipargisa, zenbait baliabide erabili dituzte. Dena den, eremu ho-

netan bide luzea dago egiteko oraindik, euren aburuz. “Euskal Herrian Chrysallis bezalako kolektiboek hausnarketarako eta kontzientziaziorako toki bat eskaintzen dute, bilatzen ari garenera gerturatzeko dena”.

Ingeleseiz euskarri gehiago daude, baina badira euskarazkoak ere. Horien artean kokatu dute Bilgune Feministaren *Izena eta izana ezbaian* gida, “euskaraz izen neutroak jartzeko baliabide eta estrategiak eskaintzen ditu”. Gaztelarazkoen artean *Buscando el final del arcoiris* edo *Dale a tu criatura 100 posibilidades en lugar de dos* lanak nabarmendu dituzte.

Erreferentez galdetuta, mugimendu feministaren eta queerren ekarpena azpimarratu dute, “beraiek izan dira generoaren eraikuntzaren gogoea urratzen lehenak; begiratzeke, zalantzan jartzeko eta eraldatzeko hainbat tresna eskaintzen dizkigute. Esperientziak erakusten digu zein modu ab-

tzen bada. “Genero bakoitzarentzat onartutako arropen hobe ez hitz egitea”. Are luzeago da egoeren zerrenda: jostailuak, umeari zuzentzeko erabiltako ahots tonua... “Jarrera horiek oso automatizatuta daude,

Queer mugimendua eta feminismoa izan dituzte liburuetan erreferente. Posta elektronikoa zabaldu dute gurasoen artean esperientziak eta gogoetak partekatzeko

Printzesa eta heroi faseetan umeak laguntzeko modu egokia aurkitu behar da euren iritziz, “baina haurra epaitu gabe”

surdo eta ausazkoan ezartzen zaizkion haur bati rol eta ezau-garriak, espero zaion genero horren arabera”, erantsi dute. Adibide gisa jarri dute negarra, ezberdin interpretatzen delakoan umea neska edo mutil gisa jo-

ez dirudi aurretiazko hausnarketarik dagoenik, horregatik berregiten dira hain erraz”, aipatu dute. Nahita ere ezingo lukete esan zenbat aldiz galdetu dieten euren haurra neska edo mutila den, “beste ezer baino lehenago eskatzen den informazioa da”. Hizkuntza orokortuak eragin handia du, haien iritziz: “Ematen dugun erantzunaren arabera erlazionatzeko modua aldatzen da”.

Umeari dagokionez, gurasoek pentsatzen dute helduek baino malguago bizi duela identitate prozesua. “Gure umea txikiegia da oraindik galdera horri gure esperientziatik erantzuteko, baina gertuko beste haur batzuk ikusita; generoa helduok inposatu nahi duguna baino arinago bizi dutela ikusten dugu”.

Etiketarik harago, zailtasunak

Zenbait pertsonaren babesa jaso dute N.S eta J.Ok. Alabaina, ez dute argi ahal bezala jartzen dituzten mugez harago, zabal errespetatuko den aukera izango denik.

Hala ere, euren haurrak bere generoa nahieran bizi ahal izateko sare eta gune seguruak sortzen saiatzen dira, baita familia ereduari dagokionean ere. “Kanpotik zerbait zaila, nahasia edo esperimentalak egiten ari garela ematen duela sentitzen dugu; gure asmoa guztiz bestelakoa denean: aurreiritziez libratu, gure haurrak aurkitu eta behar duenaren atzetik joaten saiatu, eta entzun”.

Oztopoak oztopo, aurrera doazela pentsatzen dute: “Badi-

Euren haurrak bere generoa nahieran bizi ahal izateko sare eta gune seguruak sortzen saiatzen dira, baita familia ereduari dagokionean ere

rudiazkenaldian heteropatriarkatuaren kontrako bistaratze eta salaketa lan handia egiten ari dela, baina urrats bat gehiago eman eta genero rolak nola eraikitzen diren aztertu beharko genukeela uste dugu”.

Finean, harreman desorekatuak saihesteko genero bitasunari -eta rolak ulertzeko zurruntasunari- aurre hartu behar zaie, “genero bizipen eta adierazpenei, bai haurrengan eta baita helduengan ere”.

Heziketa eta generoaren inguruan hausnarketa sare eta gune seguruak sortzeko asmoarekin, euren kontaktua jarri dute eskura N.S eta J.Ok, jakin-nahiak eta esperientziak trukatzeko: ortzadarraigarotzen@gmail.com.



Baliabide ugari erabiltzen ari da Urduñako bikotea. AiaraIdeia.eus

HEZKUNZA FAKTORIA
Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena

AURKEZPEN JAIALDIA

OTSAILAK 1, OSTIRALA
LAUDIOKO KASINOAN / 17:30

MUSIKA, IPUIN KONTALARIA, TAILERRAK, IKUSKIZUNAK, MERIENDA...

Hezitzaile zein familia guztiak gonbidatuak zaudete!

Kokoriko hezkuntza faktoria

KOKORIKO HEZKUNTZA FAKTORIAREN 2019KO HEZKUNTZA JARDUNALDIAK

Jolasa ardatz espazio hezitzaileak iparrorratz

**OTSAILAK 16, LARUNBATA
URDUÑAKO ALONDEGIAN**

IZEN EMATEA

Jardunaldiak **DOAKOAK** izango diren arren, izen ematea egin beharko da link honetan.

www.labur.eus/kokoriko_jardunaldiak
Izen emate azken eguna otsailak 13

BAZKARIA 15 €
Zalantzarik izatekotan
deitu **693855312**
(Aritz Lili)
telefonora

HITZALDIAK

10:00 AURKEZPENA

10:30 Arizmendi Ikastola: **KONFIANTZAREN PEDAGOGIA**
Iban Roa Pérez eta Aitor Elizaran Egidazu

11:15 **GASTEIZEKO RAMON BAJO HERRI IKASTETXEA**

12:00 ATSEDENALDIA

12:30 **JOLASTOKIAK BERMOLDATZEN**
Maialen Arregi (Hiritik At)

13:15 **AMATASUNA/AITATASUNA, PRIVATIZATUAK?**
Plistiplasta Familia gunearen inguruan
Txusma Azkona Mendizabal

14:00 ITXIERA

14:30 **BAZKARIA** (izen ematearekin apuntatu daiteke)

16:30 **JOLASA ERAIKITZAILERAKO BALDINTZAK**
Jon Arana Albeniz

17:30 **ESKOLAN GENEROA ERAIKITZEN:**
zer gertatzen da komunetan?

Amelia Barquín

18:30 ITXIERA



Virgen Niña ikastetxea

“Jendartearekin konprometituak izango diren ikasleak hezten ditugu”

VIRGEN NIÑAKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA DA **AMAIA ALDAMA**. IKASTETXEAN GARATZEN ARI DIREN HEKUNTZA EREDUAREN OINARRIAK ETA BALOREAK AZALDU DITU.

Zeintzuk dira Virgen Niñako hezkuntza proiektuaren xedeak?

Virgen Niña ikastetxearen helburua da ikasleek ahal bezain beste garatzea pertsonen formazioarako funtsezkoak diren hiru oinarri.

Zeintzuk dira oinarri horiek?

Giza baloreena da horietako bat. Ikasleak sentiberak eta adeitsuak izatea dugu helburu, emozionalki trebeak izatea, positiboak. Hezkuntza emozionala baliatzen dugu horretarako, jardura tutorial eta pastoralarekin batera.

Akademikoki abila diren ikasleak hezten ditugu, gaur egungo eta etorkizuneko erronkei heltzeko prest egongo direnak. Pentsamendu kritikoa sustatzen dugu horretarako, hiru hizkutzetan irakatsiaz. Sorme-

na, talde lana eta hausnarke-ta ere ditugu oinarri, euren buruei galderak egitera bultzatzen ditugu ikasleak.

Zer tresna erabiltzen dituzue helburu horiek erdiesteko?

Kirik proiektua dugu, Haur Hezkuntzan. Ulermenerako irakaskuntza jorratzen dugu, Harvard Unibertsitateko Project Zero egitasmoan oinarrituta. Proiektuen bidez irakasten dugu, ikastetxeko irakasleek garatutako ekimenen bidez.

Horrez gain, irakurketa plana ere garatzen dugu DBH 4. mailara arte. Eleaniztasunari ere garrantzi nabarmena ematen dio.

Badituzue baita beste proiektu batzuk, ez?

Hala da, bai. Ikasketa zerbitzua egitasmoa dugu esku artean,



zerbitzu bat eskainiaz ikasteen datzana. Agenda 21 ekimenen ere parte hartzen dugu, ingurunearekiko sentsibiltatea indartzeko. Ekimen horien helburua da jendartearekin konprometituak egongo diren ikasleak hezte, enpatikoak, aktiboak eta solidarioak izango direnak.



Hezkuntza eskaintza oparoa dute Virgen Niña ikastetxean. **Virgen Niña ikastetxea**



Matrikula irekia

MATRIKULA EPEA

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

KALITATEZKO IKASTETXE EUSKALDUN, BERRITZAILE ETA MUNDUARI IREKIA NAHI DUZU? ETA... ZERGATIK EZ VIRGEN NIÑA IKASTETXEA?

PROIEKTUA

Oinarriak ezarri. Ezagutzak eraiki
0-16 urte artekoa



- Hezkuntza emozionala
- Tutoretza plan bateratua
- Pastoralta

- Ikasketa-zerbitzu proiektua
- Eskola Agenda 21

- Kirik proiektua (HH)
- Ulermenerako hezkuntza: Harvard Unibertsitateko Project Zeron oinarritutako berezko proiektuen arabera ikaskuntza
- Ikaskuntza kooperatiboa
- Irakurketa plana
- Eleaniztasuna: D eredu eta ingeles indartua

Kokoriko hezkuntza faktoria

Jaio berri da Kokoriko hezkuntza faktoria, bertako kideek lanean urtebete baino gehiago daramaten arren. Makina bat ekintza antolatu dituzte dagoeneko, eta aurrean ere beste horrenbeste egingo dituzte.

Kokoriko hezkuntza faktoria abian da

Urte berriarekin batera jaio da Kokoriko Hezkuntza Faktoria. Hala ere, urtebete daramatzate bertako kideek lanean, egitasmoa garatzen. Udalekuak, irteerak, hainbat ikastetxeetako eskolaz kanpoko ekintzak, ikastaroak eta beste hainbat gauza zutuzten iaz, eta aurrean ere gehiago egitea dute helburu.

“Hezkuntza ildoaren jatorria joateko bi urte atzera egin beharko genituzke, Aiaraldea Ekintzen Faktoria jaio zen urtera, bertan zehaztu baitzen proiektuaren ardatzetako bat hezkuntzarena izango zela”, azaldu du Aritz Lilik. “Hezkuntza eredu alternatiboa” eskain-

tzea izango da Kokorikoren xedea, “modu integralean” eraginda, “hezkuntza formalean, ez formalean zein informalean”. Haur eta gazteak “erdigunean” jarri nahi dituzte horretarako, izaki oso moduan dituzten eskubide eta betebeharrak aldarrikatuta.

Hezkuntza jardunaldiak

Urtea indartsu hasi dute Kokorikoko kideek. 20 orduko formazio saioa eskaintzen ari dira hezkuntza ez formaleko hezitzaileentzako. Otsailaren 16an, aldiz, Hezkuntza Jardunaldiak egingo dituzte Urduñan. Espazio hezitzaileak izango dituzte

hizpide, hainbat gonbidaturekin: Jon Arana, Amelia Barquín, Hiritik At arkitekto taldea, Plisti Plasta familia espazioa eta Arizmendi ikastola.

Aurkezpene otsailaren 1ean

Otsailaren 1ean, aldiz, proiektu osoaren aurkezpene burutuko dute Laudioko Kasinoan, 17:30ean. “Nahi duen oro etor daiteke aurkezpenera”, zehaztu dute. Bestelako erronkak ere badituzte esku artean. “Udalekuak, irteerak, udaberriko jarduerak, negulekuak, unitate didaktikoak... makina bat ekintza egingo ditugu aurrean”, aurreratu dute.



Ekintza ugari garatu ditu dagoeneko Kokoriko hezkuntza faktoriak. Aiaraldea.eus

hitz zentroa

Karmen kalea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22

PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA

- Logopedia.
- Pedagogian laguntza terapia.
- Psikologia: umeentzako, helduentzako, bikoteentzako eta familientzako psikoterapia.
- Sexologia: heziketa, aholkularitza eta terapia.
- Fisioterapia pediatrikoa.
- Arreta goiztiarra (0-6 urte bitartekoa).
- INTERAC-ekin lankidetzak: gaitasun intelektual handiko neska-mutilen detekzioa eta arreta.
- Errendimendu Altuko taldeak (GAR).
- Ikastetxeekin harremanak.
- Gurasoentzako orientazioa.
- Taillerak: irakurketa, hezkuntza, ahotsa, emozioak...

bai
euskarari

zerbitzua euskaraz

EVA ALONSO LARRAZABAL
LOGOPEDA eta PEDAGOGA
Eba_alonso@hotmail.com

EZTIZEN ALDAMA JAUREGI
FISIOTERAPEUTA PEDIATRIKOA

DIANA IBARGUTXI ABARRATEGI
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGOA / SEXOLOGO KLINIKOA

AINTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA

URDUÑA

Konpetentzia digitala
Sare-hezkuntza gelan

- Informazio eta komunikazio teknologien uztarketa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.
- Familiekin komunikazio arloan ikastetxe berritzailea izan nahi du eta, horretarako, tresna digitalak erabiltzen ditu: Alexia Familia plataforma.
- Teknologia digitalen erabilera ikaskuntza prozesuetan (1x1 proiektua)

Haurtzaindegia (7:30etatik aurrera).

Bi urteko gela, haurtzaindegiko ordutegia eta egutegiarekin.

Bizkortze goiztiarraren sistema (DOMAN).

Orientabidea.

Ikasketa bidaia.

ELEANIZTASUNA

Euskara erreferentziatut hartuta, ikasle eleanitzak indartzen dira.

EGA prestatzeko taldea.

Ingelesa indartua. Cambridgeko azterketa-zentroa.

ZERBITZU OSAGARRIAK ETA AZPIEGITURAK

Oroskotik eskola-garraioa

Bertan prestatutako janaria eskaintzen duen jangela.

Informatikako gelak eta internetara sarbidea ikasgela guztietan.

Laborategia.

Kirol- instalazio handiak.

Ordutegia zabaltzea familiako eta lanen bizitza bateratzen laguntzeko.

Foru Plaza, 5 48460 - Urduña (Bizkaia) 945 384 830 secretaria@colegiojosefinos.com